DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasuna
Salud Ambiental y Sostenibilidad
Mandasko Dukearen pasealekua, 66 - Cristina-enea | Tel. 010 - 943481000 | ingurumena@donostia.eus | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzarra
Junta de Gobierno Local
TGB akordioa
Acuerdo de JGL
2024/09/24
Zinegotzi idazkaria / Concejal-a secretario-a
Kerman Orbegozo Uribe

## TOKIKO GOBERNU BATZARRARI

Europako Batzordeak adierazi du estatu kideek, besteak beste, herritarren arteko autokontsumoa erraztu behar dutela, kontsumitzaileek beren energia sortu, biltegiratu, partekatu, kontsumitu edo merkatura saldu ahal izan dezaten, zuzenean edo agregatzaileen bidez. Hala, kontsumitzaileek aktiboki kontrola eta kudea dezakete beren energia-kontsumoa, ondoren kontsumituko duten energia ekoizteko prozesuan subjektu aktibo bihurtuz.

Hala, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/944 (EB) Zuzentarauak, elektrizitatearen barne-merkaturako arau komunei buruzkoak, energiaren herritarren komunitatearen figura definitzen du, herritarrek eta toki-erakundeek energiaren merkatuetan parte hartzeko bidea errazteko.

Era berean, estatu kideei eskatzen die erkidego horiek garatzeko esparru erraztaile bat ezar dezatela, kontsumitzaileek komunitate horietarako sarbidea izango dutela eta erakunde horiek energiaren merkatuetan sartzeko justifikatu gabeko oztopoak kenduko direla bermatuz.

Bestalde, Espainiako Estatuak autokontsumorako esparru juridikoa sortu du apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren bidez (energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena), eta energia berriztagarrien erkidegoen figuraren definizioa sartu du ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (energia arloko eta ekonomia suspertzeko beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituena).

Bestalde, Donostiako Udalak hamarkadak daramatza klima-aldaketaren aurkako borroka bultzatzen.

Hala, 2017an, Klima DSS2050 estrategia onartu zen, eta hiria Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itun berrira atxiki zen. Estrategia hori onartzeak eta Alkateen Itunari atxikitzeak berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburu zehatz batzuk onartzea dakar. Horretarako, ezinbestekoa da energia berriztagarrien ekoizpena sustatzea, sektore

## A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

Desde la Comisión Europea se apunta que los Estados Miembros deben facilitar, entre otros aspectos, el autoconsumo entre la ciudadanía, de tal forma que los consumidores puedan generar su propia energía, almacenarla, compartirla, consumirla o venderla al mercado, bien directamente o mediante agregadores. Así, los consumidores pueden controlar y gestionar activamente su consumo energético convirtiéndose en sujetos activos en el proceso de producción de la energía que van a consumir posteriormente.

Así, la Directiva (UE) 2019/944 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de junio de 2019, sobre normas comunes para el mercado interior de la electricidad, define la figura de la comunidad ciudadana de energía para facilitar una vía de participación de la ciudadanía, así como de las entidades locales en los mercados de la energía.

Asimismo, insta a los Estados Miembros a que instauren un marco facilitador para el desarrollo de estas comunidades, garantizando el acceso a las mismas de las personas consumidoras y la eliminación de barreras injustificadas para el acceso de estas entidades a los mercados de la energía.

Por su parte, el Estado Español crea el marco jurídico para el autoconsumo mediante el Real Decreto 244/2019, de 5 de abril, por el que se regulan las condiciones administrativas, técnicas y económicas del autoconsumo de energía eléctrica, y ha incorporado la definición de la figura de las comunidades de energías renovables mediante el Real Decreto-Ley 23/2020, de 23 de junio, por el que se aprueban medidas en materia de energía y en otros ámbitos para la reactivación económica.

Por otro lado el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián lleva décadas impulsando la lucha contra el cambio climático.

Así, en 2017 se aprobó la estrategia Klima DSS2050 y se firmó la adhesión de la ciudad al nuevo Pacto de Alcaldes por el Clima y la Energía. La aprobación de esta estrategia, así como la adhesión al Pacto de Alcaldes, supone aprobar unos objetivos concretos de reducción de emisiones de gases de efecto invernadero, para lo cual es imprescindible fomentar la producción de

10740n XVII

publikoan ez ezik, baita bizitegi-sektorean ere.

energía renovable no solo en el sector público sino también en el sector residencial.

Gainera, 2020ko martxoan, Udalak Klima Larrialdiaren Deklarazioa onartu zuen ekintza-multzo zehatz batekin. Energiaren eremuan, eraikuntza pribatuan autokontsumoko ekoizpen berriztagarria bultzatzeko beharra azpimarratzen da.

Además, en marzo de 2020 el Ayuntamiento aprobó la Declaración de Emergencia climática con una batería concreta de acciones. En el ámbito de la energía se subraya la necesidad del impulso de producción renovable de autoconsumo en la edificación privada.

2023ko azaroaren 21ean, oinarri arautzaileak onartu ziren, Donostiako udalerrian 2023ko deialdian energia berriztagarrien komunitateak sortzeko eta instalazio fotovoltaikoetan inbertitzeko dirulaguntzak emateko.

El 21 de noviembre del 2023 se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de las subvenciones a la creación de comunidades de energías renovables y a la inversión en instalaciones fotovoltaicas por parte de las comunidades de energías renovables de la convocatoria de 2023 en el Municipio de San Sebastián.

Horrela, 99.900 euroko gastua baimendu zen 2023ko deialdiari aurre egiteko. Gastua 2023ko Ekitaldiko Jasangarritasun Programako 481.02 partidari egotzi zitzaion.

Así, se autorizó un gasto por importe de 99.900 euros para hacer frente a la convocatoria del año 2023. El gasto se imputó a la partida 481.02 del Programa de Sostenibilidad del Ejercicio 2023.

Oinarriak irabazi-asmorik gabeko elkarteentzat ziren, eta, horren ondorioz, energia-komunitateetako hainbat ekimenek ezin zituzten laguntzak eskuratu, irabazi-asmorik gabeko kooperatiba gisa eratuta zeudelako. Kooperatiba-figura horiek Europar Batasuneko araudian eta Energia Erkidegoak definitzen dituen Estatuko araudian txertatuta daudenez, egokia da aurretik onartutako oinarri arautzaile berriak argitaratzea, kooperatibek beren lekua izan dezaten.

Las bases estaban dirigidas a Asociaciones sin ánimo de lucro, lo cual hizo que varias iniciativas de comunidades energéticas no pudieran acceder a las ayudas por estar constituidas como Cooperativas sin ánimo de lucro. Teniendo estas figuras cooperativas encaje en la normativa comunitaria y en su trasposición a la normativa estatal que define las Comunidades Energéticas, resulta adecuado proceder a publicar unas nuevas bases reguladoras de subvenciones para que las cooperativas tengan su encaje.

Aurreko guztia ikusita, Ekologia eta Hiri Proiektuetarako zinegotziordezkariak, hau sinatzen duten zuzendariak eta burutzak, tokiko gobernu-batzarrari honako hauek proposatu dizkio:

A la vista de cuanto antecede, el Concejal Delegado de Ecología y Proyectos Urbanos, el Director y Jefatura que suscriben, proponen a la Junta de Gobierno local los siguientes

**ERABAKIAK:**

**ACUERDOS:**

**LEHENENGOA:** Donostiako Udalaren 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta 2024-2026 Plan Estrategiko Bateratua aldatzea, laguntza-lerro bat sartzeko. Dirulaguntza horien helburua, 2024ko deialdiarekin, Donostiako udalerrian energia berriztagarrien komunitateak sortzen eta komunitate horiek instalazio fotovoltaikoetan egin ditzaten inbertsioak bultzatzen laguntzea izanik.

**PRIMERO:** Modificar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de San Sebastián y el Plan Estratégico Conjunto 2024-2026 para la incorporación a los mismos de una línea de subvención para la concesión de las subvenciones a la creación de comunidades de energías renovables y a la inversión en instalaciones fotovoltaicas por parte de las comunidades de energías renovables de la convocatoria de 2024 en el Municipio de San Sebastián.

**BIGARRENA:** Onartzea Donostiako udalerrian

**SEGUNDO:** Aprobar las bases reguladoras para

energia berriztagarrien komunitateak sortzeko eta energia berriztagarrien komunitateek instalazio fotovoltaikoetan inbertitzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak (2024ko deialdia).

la concesión de las subvenciones a la creación de comunidades de energías renovables y a la inversión en instalaciones fotovoltaicas por parte de las comunidades de energías renovables de la convocatoria de 2024 en el Municipio de San Sebastián.

**HIRUGARRENA:** 60.000,00 euroko gastua baimentzea, 2024ko deialdiari aurre egiteko. Gastua 2024ko Jasangarritasun Programaren 471.01 partidari egotziko zaio.

**TERCERO:** Autorizar un gasto por importe de 60.000,00 euros para hacer frente a la convocatoria del año 2024. El gasto se imputará a la partida 471.01 del Programa de Sostenibilidad del Ejercicio 2024.

**LAUGARRENA:** Ekologia eta Hiri Proiektuetako zinegotziaren esku uztea laguntzak emateko eskumena, bai eta laguntza hauek kudeatzeko beharrezkoak diren administrazio-jarduera guztiak egiteko ahalmena ere, hala badagokio, itzulketa-prozedura barne.

**CUARTO:** Delegar en el Concejal de Ecología y Proyectos Urbanos la concesión de las ayudas así como las facultades para realizar todas aquellas actuaciones administrativas que requiera la gestión de las presente ayudas, incluido, en su caso, el procedimiento de reintegro.

**BOSGARRENA:** Diru-laguntzen datu-base nazionalaren bidez oinarri arautzaileak argitaratzea 2024ko deialdiko energia berriztagarrien komunitateak sortzeko eta energia berriztagarrien komunitateek instalazio fotovoltaikoetan inbertitzeko dirulaguntzak ematea.

**QUINTO:** Proceder a la publicación a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones de las bases reguladoras de la convocatoria 2024 para la concesión de las subvenciones a la creación de comunidades de energías renovables y a la inversión en instalaciones fotovoltaicas por parte de las comunidades de energías renovables

Donostian, sinaduraren datan,

INGURUMEN OSASUNAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN ZERBITZUAREN BURUA
JEFA DE SERVICIO DE SALUD AMBIENTAL Y SOSTENIBILIDAD

Ana Juaristi Arrieta

OSASUNA ETA INGURUMENAREN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE SALUD Y MEDIO AMBIENTE

Sergio Fernández Unanue

EKOLOGIAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
CONCEJAL DELEGADO DE ECOLOGÍA Y PROYECTOS URBANOS.

Kontuhartzailetza eta Kontabilitatea
Intervención y Contabilidad
Erreferentzia
Referencia
38958-2024
Kontabilizatua
Contabilizado

Juan Marrero Vizcaino

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Ana Juaristi (12/09/2024 13:16 CEST), Juan Marrero Vizcaino (12/09/2024 13:29 CEST)
Sergio Fernández Unanue (12/09/2024 13:33 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : SQ2R-N8EP-PFF5-KZL5